



## AZIDO ERRETINOIKO BIDEZKO TRATAMENDUA

### MEDIKUNTZA NUKLEARRA

#### ISOTRETINOINA

Botika hau A bitaminarekin erlazionatuta dago. Akne larriaren eta larruazaleko beste gaixotasun batzuen tratamendurako erabiltzen da.

Zure kasuan, tratamenduaren helburua da iodo-131 atxikitzeari utzi dioten edo atxikitzen ez duten zure tiroide-kartzinomaren hondarrek edo metastasiak berriz hura atxiki dezaten eta, hala, tratamenduarekiko sentikor izan daitezen lortzea.

Fabrikako MARKA: RACUTAN®

#### NOIZ EZ DUZUN MEDIKAMENTU HAU HARTU BEHAR

Ez duzu medikamentu hau erabili behar aurrez isotretinoinarekin alergia-erreakziorik izan baduzu, haurdun bazaude edo tratamenduak irauten duen bitartean haurdun geratzeko asmoa baduzu.

#### NOLA ERABILI ETA GORDE MEDIKAMENTUA

Kapsulak:

- Zure sendagileak esango dizu zer dosi eta zer maiztasunekin hartu behar duzun. Ez hartu sendagileak esandakoa baino gehiago, ez maizago.
- Medikamentu hau janariarekin edo esnearekin batera hartzea komeni da. Irents itzazu kapsulak/konprimituak osorik. Ez apurtu, ez zanpatu eta ez mastekatu.
- Medikazio honek pazienteentzako jarraibideak dakartza. Irakurri eta kasu egin jarraibideei arretaz. Galdetu lasai, zalantzarik baldin baduzu. Baliteke sendagileak formularioren bat sinatzeko eskatzea, informazioa ulertzen duzula eta tratamendua onartzen duzula ziurtatzeko (baimen informatua).
- Gorde ezazu medikamentua giro-tenperaturan, bero-iturrietatik urrun eta zuzeneko argitik babestuta.
- Gorde itzazu medikamentu guztiak haurren eskuetatik kanpo, eta ez partekatu sekula inorekin.

Dosi bat hartzea ahaztuz gero:

- Dosi bat huts egiten baduzu edo hartzea ahanzten baduzu, har ezazu ahal bezain laster. Baina hurrengo dosia hartzeko unea bada ia, itxaron hurrengo hartzeko unera arte, eta ez hartu ahaztutako dosia.
- Ez saiatu ahaztutako dosi bat berreskuratzen.

#### SAIHESTU BEHARREKO MEDIKAMENTUAK ETA JANARIAK

- Galdetu medikuari edo farmazeutikoari beste medikazioren bat hartu baino lehen, baita errezetarik behar ez duten botikak (bitaminak eta belar-dendetako produktuak) hartu baino lehen ere.
- Tetraziklina duten antibiotikoak edo A bitamina duten gehigarriak hartzen ari bazara, jakinarazi medikuari.
- Ez edan alkoholik medikamentu hau hartzen duzun bitartean. Ez egin inolako azal-tratamendurik edo argizari bidezko depilaziorik medikamentu hau hartzen duzun bitartean, ezta azken dosia hartzen duzunik gutxienez 6 hilabete igaro arte ere.

#### OHARRAK

- Haurdun zaudelarik medikamentu hau hartzeak kalte egin diezaioke etorkizun den haurtxoari. Erabili antisorgailu seguruak, tratamenduaren aurretiko hilabete batetik azken dosia hartu eta hilabete geroago arte. Medikamentua hartzen ari zarelarik haurdun geratu zarela uste baduzu, jakinarazi lehenbailehen medikuari.

.../...



- Zure medikuak, bestalde, hauen berri izan behar du: Bularra ematen ari zaren, diabetikoa zaren, bihotzeko gaitzen bat duzun, alkoholismoa, alergiak, asma, gibelesko gaitzak, buru-gaixotasuneko historia edo bestelako arazo medikoak dituzun.
- Larruazaleko arazoak badituzu, gerta liteke hasieran okerrera egitea denbora-tarte labur batez, hobekuntza nabaritu aurretik. Zure akneak hobera egin dezake medikamentua hartzeari utzi ondoren ere.
- Ez eman odolik medikamentu hau hartzen ari zarenean, ezta azken dosia hartu zenuenetik hilabete pasatu arte ere.
- Baliteke medikamentu honek eguzki-argiarekiko sentikorrago bihurtzea zure larruazala. Erabili eguzkitik babesteko kremak kanpoan zaudenean. Ez erabili eguzki-lanpararik, ez belzteko oherik.
- Horrez gainera, ilunantzean eta ilunpetan ikusmen-arazoak izatea eragin dezake. Beraz, kontuz ibili automobil bat gidatzean edo makinak erabiltzean.
- Sendagileak kontrolak egin beharko dizkizu ohiko bisitetan, medikamentua hartzen ari zaren bitartean. Ez huts egin hitzorduak.

#### ALBO-ONDORIOAK:

##### Deitu berehala medikuari albo-ondorio hauetakoren bat baldin badaukazu:

- Alergia-erreakzioa: erresumina (azkura) edo babak, aurpegia edo eskuak haztea, ahoa edo eztarria haztea edo azkura izatea, bularrean presioa sentitzea edo arnasteko zailtasunak izatea.
- Deprimetua edo haserrekor sentitzen bazara, edo ohikoa ez den portaera baduzu edo zure buruari kalte egiteko burutazioak badituzu.
- Entzumen-arazoak edo txistu-hotsak.
- Diarrea larria, goragalea edo urdaileko mina.
- Buruko min handia, ikusmen lausoa, bertigoa, goragalea, goitika.
- Larruazal edo begi horiak.

##### Ondorio hauetakoren bat (ez hain larriak) baldin baduzu, hitz egin medikuarekin:

- Ezpainak lehor, zartatuta, ahoa edo sudurra lehor, edo begiak lehor.
- Larruazala lehor, erresuminduta baduzu edo azala joaten bazaizu.
- Muskuluetako edo artikulazioetako mina.
- Arazoak ukipen-leiarrak erabiltzen badituzu.

BESTE ALBO-ONDORIO BATZUK BADITUZU ETA MEDIKAMENTUAK ERAGINDAKOAK DIRELA USTE BADUZU, JAKINARAZI MEDIKUARI.

#### EGIN KASU SINTOMAK SAIHESTEKO EDO HOBETZEKO GOMENDIO HAUEI:

- Baselina: “Ceralip®” edo “Kelyane®” ezpainetako krema (tutu arrunta); etxean zaudenean, eman ugari ezpainetan. Kalerako, erabili ezpainak babesteko ezpainetakoa.
- Eguzkitiko babesa: Babestu bistan daramatzazun larruazal-atalak eguzki-babesa duten kremekin.
- Krema hidratatzaileak: aurpegirako.
- Mukosak lehor badituzu: “Rinobanedif®”, sudurrerako.
- Ez erabili tetraziklinarik, ez edan edari alkoholdunik, ez hartu aspirinarik edo antiagregatzailek, eta ez A bitaminaren eratorriak.

Egiaztatzeko medikazioak bestelako arazorik ez dizula eragiten, aldi behin kontrol analitikoak edo azterketa osagarriak egingo dizkizugu goian aipatutako alarma-sintomaren bat badaukazu (hematimetria, globuluen jalkiera-abiadura (GJA), entzima hepatikoak, kreatinina, kolesterola eta triglizeridoak; beharrezkoa bada, Oftalmologiako edo Neurologiako kontsultak ere bai), eta, horien arabera, gerta liteke tratamendua bertan behera utzi behar izatea.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:00etatik 15:00etara

Telefonoa: 945 00 77 60 - 945 00 77 62 / Faxe: 945 00 77 32

**Berrikusia: 2016ko apirila**

**I.O- Medikuntza Nuklearra -15**

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu artatzen zaituzten profesionalei